



AURKEZPENA

Lerro hauen bitartez, “*Zuzenbidea Ikasten. Irakaskuntzarako aldizkaria*” aurkezteko plazerra dut. Aldizkaria 2014an jaio da, lehenengo zenbakiaren bitartez, UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateko Euskara Batzordeak bultzatuta. Fakultateak, aldizkari hau euskaraz idatzitako lan juridikoak plazaratzeko gunea izatea nahi du, modu horretan esparru juridikoan beren erabilera sustatuz. Aldizkaria irakasle eta ikasle euskaldunei zuzenduta dago.

Argitalpen honek, irakasleek irakaskuntzara zuzenduta egiten dituzten ikerketak transmititu eta partekatzeko gunea sortu nahi du. Modu honetan, jakituria hedatzeko aukera sortzen da, ikasleengana eta baita ere gainontzeko irakasleengana zabalduz.

Unibertsitate komunitateko kolektibo desberdinen sinergiak sustatu nahi ditugu, diziplinartekotasuna sustatuz, eta baita ere eztabaida dinamika eraginez jurista batek alde batera utzi ezin dituen gaurkotasuneko gaiei buruz.

Bestalde, argitalpen honekin gure Unibertsitate komunitatea osatzen duten kolektibo desberdinen elkargunea sortu nahi dugu, ikasleei beren Gradu Amaierako Lanak argitaratu eta partekatzeko aukera emanez.

Kalitatezko ekarpen guztiei irekita, Aldizkariak argitaratutako lanen kalitatea bermatuko duen edizio Kontseilua dauka.

Zinez eskertu nahi dut Aldizkariko zuzendaritzak eta edizio Kontseiluko kideek musu-truk egindako lana, egitasmo hau gauzatzea ahalbideratu baitu. Espero dut gure Zuzenbide Fakultateko irakasle eta ikasleen laguntza eta lankidetzaren egotea, argitaratzeko lanak prestatuz.

Juana GOIZUETA VERTIZ
Jarduneko Dekanoa



JUANA GOIZUETA VÉRTIZ, Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko Jarduneko Dekanoak.

ZIURTATZEN DU:

Euskara Batzordearen baitan **“Zuzenbidea ikasten. Irakaskuntzarako aldizkaria”** sortzeko erabakia onetsi duela Fakultateko Batzarrak, 2013ko irailaren 30ean egindako bileran.

Eta horrela jasota gera dadin, honako ziurtagiria luzatzen dut Donostian, 2014ko otsailaren 11ean.

JARDUNEKO DEKANOA

Fdo.: Juana Goizueta Vértiz

